

Sustantiboaren zimurrak

IÑIGO ARANBARRI



SAIHESTU adjetiboa. Honela ematen zaie aholku kazetarigaiei esku artean darabilten oreka eder bezain zirin gerta dakiekeela oharrazteko. Zehatza behar du berriemaileak, adjetiborik gabea hiztegiak, ez markatua hitzak. Eta lagun gazigozagarririk gabeko sustantiboz emanen digute berria, mundua paperera bildua, ez alde ez kontra, libreago izan gaitzen. Irakurlearen eskubidea da, garaia lagun, hizkuntza hotzarena.

Gaur zortzi. Egunkari guztiek eraso militar baten berriarekin zabaldu zuten lehen orrialdea. Barreneko iritziek ipar arras diferentek ematen badituzte ere, bat datoz —gatoz, euskara ez da irla bat, esan ziguten— guztiak azalean. Zigorra. Pertsonalizatua batzuek, Bushek Saddami; nork nori zientifikoagoa besteek: Estatu Batuek Iraki. Adjetiboa saihestu zutelarik sustantiboaren laxoak ditu lotu. Zigorrek, latigoa gozatzen ere aspaldi ikasiak gara, badu berarekin zigortzailearekiko begirunea, justiziaren banaketari buruzko zerarik. Larderia. Merez duena zigortzen da, bai gurean behintzat. Gerra bideo-kontsolatik ateratzen dugunetan ezabatuko dugu hitza hiztegitik, mingarriagoa izanak —hurbilagoko esan beharko nuke— egiten du erabilgaitzagoa.

Dorpetua dugu, bake garaian sortu eta egunera ekarri ezin gure ibilaldietako hizkuntza hau. Hitzak falta, usain susmagarri-dunak ditugunak. Inbasio esan behar al dugu? Ez da infanteriarik egon barren. Eraso? Kontraeraso? Futboleak al gaude akaso? Dorpea da, ezgauza ditu sustantiboak. Alde ederrekoa ingelesa, neutroagoa bere horretan, zehatzagoa. Adjetiborik gabe idatzi dugu guk ere tomahawketan. To Saddam with love.

Beste txapuz bat?

RAMON ETXEZARRETA



ETXEKO obretan eta txapuzen erremien-doetan bezalaxe. Aurrekontua egiten ari zaizkigu. Etxean eta gainerantzekoetan ez bezala, eta

lejitimitate osoz, ez bait gaude herritarrok numerotan denbora galtzen ibiltzeko, berriak dira ordaintzailearen eta kobratzailearen ordezkari bakar. Pakean utz gaitzabela eta egin ditzatela gauzak ongi eta behar bezala, ez dezatela alperrikan xemeiko bat bera ere gastatu eta aurreratuz dezatela ahal den guztia inoiz pobrezia menpeko izan ez gaitzen. Ongi esana, zer gero!

Hala ere ordaintzailea eta kobratzailea ados jarri ezinik dabiltzanean inori galdetu, aholkua eskatu edo beste zerbait egin behar luketela iruditzen zait. Edozer gauza ezadostasunak sortutako alperrikako gaitzen erremedioetan dirua gastatu baino.


Gipuzkoa berriro urteko kontuak egiten ari da eta urtea hasi da bukatzen, hamaika hilabeteko bizia besterik ez zaio geratzen. Iazko negu udaberriko gaitz berak joko duen trazak hartzen ari da. Gotzaien ateraldiak, adostasun eske, izango ote dira berriro beharrezko? Herritarren nazka ez ote da izango nahiko eta aski? Konturatuko ote dira...? Agintean edozein prezioetan inor egon nahiaren ondorioak, agintean dagoena agintean dagoelako izorratu nahia eta beste zerbait umekeria berriro plazaratu behar ba zaizkigu, hobe lukete egoera jasaten duen herritarri galde egin, horren prezio politikoa duen herritarri galde egin, horren prezio politikoa ordaindu edozein izanik ere gaitzaile aterako dena. Dena berriro iazkoaren errepikapenik ez ikusteagatik.

EL CORREO ESPAÑOL

Baimenik ez

Ocañako Espetxe Zaintzako epaileak Jose Amedo eta Michel Dominguez polizia ohiei sei eguneko baimena ukatzeak ebitatu egin du, alderdi juridikotik eztabaidagarria den benefizio bat emateaz gain, neurri handiko akats politikoa bat.

Ez dirudi arrazoizkoa duela bi urte eskas kondena tinkoz 108 urteko kartzelaldia betetzera zigortu zirenak, GALen antolatzaile izan eta huts egindako sei hilketaren eragile izateagatik, orain astebeteko baimenaz baliatu ahal izatea. Amedo eta Dominguezek hori lortzeko baldintza teknikoak betetzen badituzte ere, hain laster ematea ez letorke bat kondanaren eta probatu zitzaizkien gertakizunen larritasunarekin. Aitzitik, Estatuko aparailuekiko GALen loturari



ZULET / EL DIARIO VASCO

buruzko susmo frogatu ga-beak indartzea ekarriko luke.

EDITORIALA

Diario 16

PSE-PSOE eta EE: berriro hastea

PSE eta EEren bateratzean gauzarik berriena zera da, bi euskal alderdik Gernikako Estatutua zinetan hartzeko

asmoa dutela, iritsi nahirik euskal herriak Estatutua erreferendumean onartu izanak dituen ondorio politiko eta ekonomikoekin kontsentez izateraino.

Prozesua ez da erraza, euskal gizartearentzat kaltegarri diren bi jarrera, bat bezain kaltegarri bestea, bertan behera uztea eskatzen baitu. Alegia, batetik PSE-PSOE ez dezala beti amen esan eta kito Gobernu zentralak disei-

naturiko edozein transferentzia estrategiari. Eta bestetik, EEk ez dezala gehiago ontzaren eman EAJk duen Estatutua- ren inprentazio juridikoa, bere interpretazioa eta estrategia sortzeko. Eta batez ere, ez dadila Estatutua autodeterminazio prozesutzat hartu, den heterodoxoen eta dinamikoena dela ere, prozesu autonomikoa baita.

MARIO ONAINDIA

ZUZENDARIARI

KIUB zertarako Soraluzen?

Azken urte hauetan ikusten den bezala, munduan zehar ari dira jartzen eta indartzen bulego hauek, izenak adierazten duen bezala, Kontsumitzaileen Informaziorako Udal Bulegoa. Bulego hauen bitartez jasotzen dugu informazioa bai gure erosketak egokiago egiteko, zerbitzuen erabilera zuzenagoa izan dadin eta abar. (eta horrela bai pipar pote batetik txalet baten erosketaraino, edo edozein motatako aseguru bat nola egin ere erakusten digutelarik).

Ikusten dugu gure eguneroko bizitzan, bai telebistan edo beste edozein komunikabidetan nolako garrantzia duten bulego hauek gure informaziorako, espekulatuzaile eta lapur mundu honetan.

Baina beti izaten dira espezioak, eta

hau da munduan gure herritxua Soraluze, Soraluzen gare gertatuta danerako, ez daukagu premiari ez informatuta egoteko, eta ezta laguntza beharrik ere, guk danok badakigu nola ibili munduan zehar, horregatik gure Udaletxeko arduradunak, komisioko lehendakariak bere talante demokratikoa erakutsiaz, ongizate batzordeko kideak kontutan hartu gabe, eta estudio sakon bat egin gabe, beraren laguntza gobernu batzordekoekin (EAJ, PSOE) bat eginik onartu dute desegitea bulego hau.

Erabaki hauek onartu ziren plenoan, galdetu zitzaion batzordeko lehendakariari: zergatik onartu zen erabaki hau. Ez zuten jakin ez berak eta ezta bere lagunak ere erantzuten galderari, ezta, zer kostu dituen zerbitzu hauek, ezta ze funtzio duen bulego honek, ezta subentzionatua

den edo ez, baina ala ta guztiz, plenoak aurrera jarraitu zuen, eta baita onartu ere bere laguntzaren botoekin bulegoa kentzea.

Erabaki hau onartzeko aitzakia bezela hartzen badute zerbitzu hauek mankomunatuak izan daitezela, orduan era berean eta ikuspegi berdinarekin kenduko ditugu herriko zerbitzu guztiak. Beste alde batetik, esaten badute krisialdia dagoela eta aurreratzea komenigarria dela, ba esango diegu hasteko aurreratzen Aikatea kenduaz eta horrela kontutan hartu zenbat aurreratzen dugun soldatarekin, dieta eta jatorduetan eta abar, eta bere lagun gobernu batzordekoekin etxean gelditzen badira, herri guztiak irabaziko du, Amen. Ala bedi.

JAVIER GABILONDO
Soraluze (Gipuzkoa)

GAIA JARRITA



Bill Clinton

Amerikara begira gabe berdina daukagu bertan, hitz ederreko gizon ederrak aurkitzen bait dira nahinon. Nahiz hasieran promesa asko ondoren denak hor konpon, Bush baino hobea ez da izango Arkansaseko Bill Clinton.

ZIGOR ENBEITA

Egunkaria

Batzorde Parekidea: 72564 E / Lege Gordailua: SS 800/90

Administrazio Kontseiluko Lehendakaria:
MARTIN UGALDE

Kontseilu Editorialeko Zuzendaria:
JOAN MARI TORREALDAI

Gerentea: FERMIN LAZKANO

Zuzendaria: IÑAKI URÍA

Zuzendariordea: LUZIEEN ETXEZAHARRETA

Zuzendari Komertziala: JUAN INAZIO HARTSUAGA

Sustapena: NEREA AZURMENDI

Publizitatea: MARI JOSE SARASA

HELBIDEAK

Erredakzio eta Tailerra: ANTZA S.A. Industrialdea 01-02

Pabiloak / 20160 Lasarte-Oria / ☎: 37 15 45 / Faxa: 36 54 93

Egoitza soziala, Publizitatea eta Administrazioa: Antso

Jakituna, 16-1. / 20010 Donostia / ☎ 46 90 22 / Faxa: 45 59 57

Araba: San Antonio, 20-1. ezker. / 01005 Gasteiz / ☎ 23 38 72 /

Faxa: 23 38 73

Nafarroa: Iratxe Monastegia, 45-13. esk. / (Irrintzi dorrea) /

31011 Iruñea / ☎: 17 80 78/79 / Faxa: 17 80 77

Bizkaia: Barroeta Aldamar, 2-1. eskuma. / 48002 Bilbo /

☎: 423 90 62 / Faxa: 423 94 60

Lapuri / Nafarroa Beherea / Zuberoa: 503 Posta kutxatila,

/ 64105 Baiona / ☎: 59 59 35 75 / Faxa: 59 25 75 11